



**Arartekoaren 2015R-1500-14 ebazpena, 2015eko otsailaren 2koa. Horren bidez Hondarribiko Udalari gomendatzen zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, ahalik eta lasterren erantzun diezaiola, idatziz, Elkartu Elkartek (kexagileak) egin duen eskariari.**

### Aurrekariak

1. 2014ko uztailaren 4an, erakunde honetan Gipuzkoako Elkartu Elkartek (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak) sustatutako kexa idatzia sartu zen. Bertan, 2014ko apirilaren 4an Hondarribiko Udalean egindako eskaera batean jasotako erantzun falta salatzen zen.

Horren harira, bada, azaldutakoaren arabera Hondarribiko udal liburutegian (Zuloaga etxean kokatua) zaharberitze obrak ezingo zirela jakin zuten eta, eraikinaren barruko irisgarritasuna positiboki baloratzen duten arren, kanpoaldean (herritik sartzeko bideetan barne) mugikortasun murriztua duten pertsonak higiezinera sartzea guztiz ezinezkoa zen.

Hori dela eta, egoera aztertuta ondoren, Udalari irtenbide posibleak planteatu zizkioten eraikinaren kanpoaldean irisgarritasun arazoak konpontzeko. Aukera horiek, hain zuzen ere, ekarpen grafikoekin eta azalpen tekniko nahikoen deskribatu ziren.

2. 2014ko uztailaren 30ean Hondarribiko Udalera jo genuen eta idatzizko erantzun bat eskatu genion Elkartuk egindako eskariari. Halaber, gogorarazi egin genion herri administrazioen betebeharra dela herritarrak planteatzen dituzten eskariei berariazko erantzuna ematea.

3. Erantzunik jaso ez zenez, 2014ko urriaren 30ean tokiko erakunde horri nahitaezko eskaera egin behar izan genion.

4. 2014ko abenduaren 18an jaso genuen erantzuna: zehazki, Hondarribiko Udalak 2014ko apirilaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakia, Zuloaga Etxeko udal liburutegia birgaitzeko egikaritze proiektu aldatua onartzen zuena. Hau da, erabaki horren ziurtagiria baino ez zitzaigun igorri (bertan ez da inolako berariazko ebazpenik hartzen Elkartuk egindako alegazioen gainean), eta ez zitzaigun inolako daturik eman elkarte interesdunak egindako idatziari erantzungo ote zitzaion argitzeko.

5. Erakunde honek dauzkan datuen arabera, gaur egun Elkartu Elkartek ez du inolako erantzunik jaso.





## Gogoetak

1. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 27ko 30/92 Legeak administrazio prozedura erkide bat ezarri du, erakunde publiko guztiek bete behar dutena, eta, bertan, herritarren eskubideak bermatzeko sistema bat ezartzen da, 1978ko Konstituzioko agindu eta printzipioen arabera.

Hau da, lege horrek, arrazoen azalpeneko II. atalak dioen bezala, *"...herri-administrazio guztietan orokorrean aplikatu beharreko administrazio prozedura erkidea arautzen du eta herritarren gutxieneko bermeak ezartzen ditu administrazioaren jarduerari dagokionez"*. Horrenbestez, 30/92 Legeak, besteak beste, agintari publikoek herritarren partaidetza errazteko duten konstituzio agindua zehazten du (Espainiako Konstituzioko 9.2 artikulua). Gainera, legezko xedapen batean islatzen ditu zuzenbideko estatu sozial batean herritarrek izan behar dituzten bideak, bai administrazioaren jardueran parte hartzeko, bai beren ahotsa kontuan hartzeko berei eragiten dieten erabakietan (Espainiako Konstituzioko 105. artikulua):

- 9.2 artikulua: *"Herri-aginteei dagozkien gizabanakoaren eta horrek osatzen dituen taldeen berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen bideak sustatzea; berdintasun osoa eragozten edo zailtzen duten oztopoak baztertzea; eta hiritar guztien parte-hartzea politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan erraztea."*

-105. artikulua: *"Legeak arautuko ditu:*

*a) Hiritarrak entzuteko era, zuzenean edota legeak onarturiko talde edo elkarteen bitartez, eurengan eragina izango duten xedapen administratiboak egiterakoan.*

*b) Hiritarren sarbidea administrazio-agiritegi eta -erregistroetan; Estatuko segurtasunean eta defentsan, delituen miaketan edota gizakien barrukotasunean eragina duten kasuetan izan ezik.*

*c) Administrazioaren egintzak egiteko prozedura, hori dagokionean, interesdunak entzutea bermatuz."*

Konstituzioko testuaren arabera, legeak ardua berezia jartzen du herritarrek beraiei eragiten dien administrazio informazioa eskuragarri izan dezaten eta administrazio prozedurak tramitatzen direnean herri-administrazioan aurkez ditzaten interesgarritzat jotzen dituzten idazkiak, beren interes pertsonalak eta eskubideak defendatzeko asmoz.

Aitzitik, administrazio txarra izango litzateke artikulua horietan azaltzen den eginbide funtzionala haustea, hau da, erreklamazioa jaso izana jakinarazteko betebeharra, erakundeko zerbitzu eskudunari berau bidaltzeko betebeharra eta aurkeztutako erreklamazioei epe arrazoitu baren erantzuteko betebeharra haustea.

2. 30/92 Legeko 42.1 eta 58.1 artikuluen arabera, administrazioaren betebeharra da administrazio prozedura zehatz batean herritar interesdunek planteatzen dituzten gaien erantzuna eta administrazio ebazpena ematea:





42.1 artikulua: *“Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere...”*

58.1 artikulua: *“Jakinarazi egingo zaizkie interesdunei beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten administrazioaren ebazpenak eta egintzak...”*

Egindako alegazioei erantzun arrazoitua ematen zaienean, batez ere alegazio horiek baztertuak direnean, herritarrek jakin egingo dute beren asmoak zergatik ezetsi diren eta horrek erraztasunak jarriko ditu administrazioaren erabakien aurrean errekurtsioak jartzeko orduan. Herritarrek ez badakite agintari publikoek zergatik baztertu dituzten beren eskariak, zaila izango zaie argudio horiei aurre egitea, eta, ondorioz, beren interesen defentsa juridikorako eskubidea kaltetuko litzateke, zalantzarik gabe babesik gabeko egoera bat sortuz.

3. Ondorioz, kasu honetan Hondarribiko Udalak urratu egin du administrazio prozedura orokorrean jasotako printzipioa, herritarrek egiten dituzten eskari edo alegazio guztiei erantzun beharra ezartzen duena, eta, hala, babesik gabeko egoera bat sortu da. Izan ere, Elkartu Elkartek ez daki zein den administrazioaren iritzia bere asmoari buruz eta, beraz, ezinezkoa da eskatutakoaren erantzuna berrikusi ahal izatea.

Horregatik guztiagatik, Hondarribiko Udalari gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, ahalik eta lasterren erantzun diezaiola, idatziz, Elkartu Elkartek (kexagileak) egindako eskariari.

